

Lemoako pelota taldea Bizkaiko Herriarteko Txapelketan azpitxapeldun

11. orrialdea

Haizea Ziarrusta txapeldun

Haizea Ziarrusta dimoztarrak Euskal Herriko Ingude Txapelketea irabazi eta indarrean egoan marka hobetu dau, marka barria 92 kolpetan ezarri. Bagilaren 27an izan zan txapelketea Diman, herriko jaietan. Beste lau kirolarigaz neurtu zan Ziarrusta, tartean igazko txapeldun eta faboritoagaz, eta kirol honetan hasi-barria izan arren, garaipena lortu eban. 10. orrialdea



XIV. Aurreku Txapelketea garagarriaren 4an Igorreko Lasarte Aretoan

14. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

233

2015eko garagarriaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Lemoako jaiak

Hilaren amaierara arte etxon beharko da Lemoako jaietan murgiltzeko. Izan be, garagarriaren 29an hasiko dira jaiak eta 30ean botako dabe txupina. Ondoren, ekitaldiz betetako egunak abuztuaren 2ra arte.

Egunez, gai baten ingurukoak izango dira ekitaldi gehienak. Kirola, zientzia fikzioaren inguruko mozorroak, euskal jaiak, gastronomia eta alkartasuna izango dira jai egun bakotzeko ardatz. Gaubez, barriz, kontzertuak eta erromeriak animauko dabe gaugiroa. Horretarako, Gansos Rosas, Oxabi, Skakeitan, Babel Covers, Bongo Botrako eta Triki-zio taldeak izango dira Lemoan. Arratiako herrietara bueltetako autobusa zapatu gaubean egongo da, Bongo Botrako eta Triki-zio taldeak jotzen dabean gauean.

Lemoaztarrak Garsu jaietako panpinaren konpainian ospatuko dabez herriko jaiak eta aurten protagonismo berezia izango dau panpinak. Betiko lez, jaien hasieran egongo da presente eta Garsu errez emongo jakie amaierera jaioi, baina gainera aurten, Luci Linares, Arantza Martinez eta Mari Carmen Chicon panpinaren egileak botako dabe txupina.

5. orrialdea




Baltsen jeitsierea Ibaizabaletik.

Argazkia: Lemoako Udala.

ARRATIA

Herri konsultea preparentan dabil Dima

Gure Esku Dagok, bagilaren 21ean erabakitze eskubidea aldarrikatzeko San Mamesen egindako ekitaldian, 2016an herri galdeketea egiteko beharrean jarriko dirala esan eban Dimako Gure Esku Dagoko erdezkariek. 7. orrialdea



ARRATIA

Auzuneetan jai ugari

Uda etxetik kanpo egoteko sasoia da eta auzune askotan ospatzen ditue jaiak, gehienetan santu baten izenpean. Garagarriaren, santomasak Areatzan; sankristobalak Igorren; santamañeak Artean eta Dimako Bargondian; Talle-rrera eta Lemoretako jaiak; San Segismundo Zeberioko Upon; Madalenak Diman eta Ubiden; Santiago Artean, Diman, Lemoako Arrañon eta Zeanuriko Ipiñaburun eta saninazioak batez be Gorbeiaiko kurutzetan. Trikitrixearen soinuk eta mokadutxoren bat ez da inon faltauko. 7. orrialdea

UBIDE

Ubideko urregorriaren bila

Ubideko urregorriaren bila titulupean, Alvaro Rabellik XVII. mendean Ubiden bizitako "urrearen sukarraldia"ren barri emoten deusku eta San Jose burdina-meategiaren bila, ibilbide bat proposatzen dau inguruko pagadietan zehar. Ubideko meategien historiari be errepasotxo egiten deutso Rabellik eta San Jose meategiaren atzen ustiapena XX. mendeko lehenengo urteetan izan bide zala dino. Burdinolen arrastoak be topau daitezke inguru horretan, Ubiden Erdi Arotik XX. mendera arte burdina landu zan eta. 8. eta 9. orrialdeak



Udarako BEGITUREN kamiseta barriak salgai

10 eurotan, Begitu-lagunak 8 euro

Bialdu mezua begitu@topagunea.com
helbidera neurria adierazoz

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

SEI ZEANURIZTARREN MEZA BARRIA EGUN BEREAN

1.935eko bagilaren 28an, sei zeanuriztarrek batera emon eben meza barria herriko parrokiari. Gai haretako egunkarietan irakurri daiteke legez, jaia bezperan hasi zan, herriko eleiza eta ermitetako kanpai-hotsez eta mendietan sai-noak eginez.

Andra Mari eleizea gainezka egon ei zan, 2.500 lagun inguruk beteta, eta ospakizunean gotzain bik hartu eben parte: Mateo Mujikak, Gasteizeko gotzainak eta Eugenio Artaraz igorretarrak, Bach Nihineko (Indotxina) gotzainak.

Eleizkizuna amaitu ondoren,

eleizearen aurrean herriko jantzari gazteak jantzatu eben eta "Basarri" eta Uriarteren bertsoak entzuteko aukerea izan zan.

Bazkaria Rocaverdeko markesen jauregiko baratzean egin zan eta berrehun konbidadutik gora egon ziran.

Sasoi haretan erlijioak eukan eraginaren adibide argi bat dogu Zeanuri; herriko 2.600 inguru biztanleetatik, 262 erlijiosoak ziran: 47 abade, 106 fraide eta 109 moja. Zeanuri ei zan Espainia mailan, proportzinoz, biztanleko erlijioso gehien eukan herria.

Jon Urutxurtu



Sei zeanuriztarren meza barria. 1935eko bagilaren 28a. Ezkerretik eskoira: Jose Etxezarraga, Eladio Agirre, Leonardo Atutxa, Eugenio Artaraz; Bach Nihineko (Indotxina) gotzaina, Mateo Mujika; Gasteizeko gotzaina, Juan Añibarro, Jose Sagarna eta Maximo Gisasola.

Argazkia: Foto Aman.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Bagilaren 29tik garagarilaren 5era

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Garagarilaren 6tik 12ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Garagarilaren 13tik 19ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Garagarilaren 20tik 26ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arriorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arriorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Zeberio-Artea

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arriorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioarrik ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Alvaro Rabelli, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

BEGITURAKO gutuna eskerrak emoteko

Egunon! Markel Diez Urutxurtu naz eta eskerrak emoteko idazten dot BEGITURA. Urte osoan hainbeste etxerako lan, goizetik altxau behar, matematika, irakurketa, ingelesa, erlijino eta balio... puf! 7 urte daukadaz eta gauza piloa egin behar izan dot urtean zehar eta oso kantsauta amaitu dot. Pasa dan barikuan hartu nebazan oporrak eskolan eta amak argazki txapelketa bat irabazi ebanez, BEGITUK astegoieneko oporrak oparitu deuskuz. Ederto hasi doguz oporrak!

Gollanora joan ginan. Gollano Urbasan dago. Gure etxeak Gai-neko Etxea izena eukan. Lehenengo egunean, etxe osteko zelai- esku pelotako pelotea galdu eban Oihanek. Oihan nire anaia txikia da eta apur bat bihurria. Orduan futboleko peloteagaz baseballean olgau genduan familia osoak. Amak eta biok irabazi genduan. Bigarren egunean Urederra ikusten joan ginan eta bidetik gaztaia eta mermeladea erosi gentsan gizon bateri. Helau bat jan eta piszina batera joan ginan. Ze hotz ura! Ni bakarrik ausartu nintzan buru eta guzti sartzean, anaia

biak eta aita garriraino bakarrik ausartu ziran eta amak behatz lodia sartu eta toallara etxunduten joan zan.

Hirugarren egunean baso sorgindura joan ginan. Baso horretan zugatzetara igoten ibili ginan eta sorginai deitzeako erritual bat egin genduan. Zeozer arraroa pasau zan ze baso sorginduko laberintoan galdu ginan eta ordu bi egon ginan ezin urtenda. Amak eta aitak baekiela nondik urten esaten eben, baina idearik be ez eukien. Eskerrak sagarrak, naranjak eta aurreko egunean erositako gaztaia geunkala! Berandu egin zanez, etxera joan, gauzak atondu bazkaldu eta arrastiko seiretan kotxean sartu ginan etxerantza etorteko. Gasteizen, sorginetxe trikuharria ikusten parau ginan. Trikuharriak neolitoko hilerriak dirala esan deusta amak. Barriro kotxera eta Areatzara etorri ginan.

Hau izan da gure asteburu guxtia Urbasan BEGITURI esker, eta argazkian ikusiko dozuen moduan, merezitako deskantsua hartu dot. Eguneroko-eguneroko eskolara joateak asko nekatuten dau-eta. Horregaitik, aurten be argazki txapelketarako argazkiak egingo doguz. Ia suertea daukagun.

MARKEL DIEZ URUTXURTU

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Motzitu



Motzitu aditzak (motzitu, agoskatuta) honako lau esangura honeek ditu gure artean: 1) personearen itxura fisikoa galdu edo txarrera joan; 2) lagun baten arpegia tristetu edo ilundu; 3) ardiari lanea kendu; eta 4) tresna metalikoen puntea amostu edo motxoa izan, azkora, artazi, untze, tenedore (sardeska) edo kutxiloena, esate baterako. Batuaz, moztu esaten da.

ERETXIA

Kirolaren onurak

Umetatik kirola egitea da nire afizinerik gustukoena, eta eskarmentuak erakutsi deusta, geneetan erosten dan zeozer dala; gurean danok gara kirolariak eta: neba atezaina izan da futboleko urte askotan, aitak arineketan egiten dau gaztetatik, eta amak jantzan egiten dau. Beraz, nik bai ala bai kirolen bat egin behar neban (ez derrigorra zalako, baizik eta daukagun nerbioa bideratzeko).

Egia da, txikitan eskolaz kanpoko ekintza moduan hainbat kirol egiten nebazala: saskibaloia, igeriketa, gimnasia erritmikoa, balleta, taekwondo eta atletismoa. Baina adina aurrera joan ahala kirol guztien artean, atletismoa bihurtu zan nire hobya eta esan behar dot, gaur egun ez dodala neure bizitza atletismo barik ikusten. Urteekaz nire bizimodua bilakatu da. Txikia nintzanetik hainbat gauza erakutsi deusta eta hainbat balore emon. Nik beti esaten dot bizitzan irabazten eta galtzean ikasi behar dala eta hau, kirolari baten egunerokoa da. Hau txikitik barneratu ezker, bizitzarako oso baliogarria da, bai lanean, bai ikasketetan eta baita amodioan be. Izan be, jakin behar dogu gauzai daukien garrantzia emoten, eta ez guk gura dogunaren araberako garrantzia, geure buruaren biktima ez izateko.

Gauza honek umetatik barneratuta, heldua zaranean konturatzen zara, bizitzako egoera konplikauen aurrean erantzukizun aproposa izaten dozula kirolak emoten dauan eskarmentuari esker. Gainera, ikerketak dagoz sentimenduak, depresioa eta ariketa fisikoak dituen erlazinoai buruz. Laburbilduz, ikerketa honeetan azaltzen dan gauzarik garrantzitsuena zera da: ariketa fisikoa egiteak sentimenduak positibo bihurtzen dituala eta, era berean, personea zenbat eta positiboagoa izan, gauzak hobeto egiten dituala. Azken finean, ariketa fisikoa praktikan dogunean, eguneroko arazoez deskonektatu



IRAIA GARCIA ETXEBARRIA

Atleta

heinean bere motibazioa indartzen doa eta motibazioa indartzen doan heinean, bere burua gai ikusten dau hainbat gauza aurrera erodateko, edo baztertuta ebazan gauzai aurre egiteko. Hau personearen jarkeran isladatzen da. Hau frogatzeko esperimendu bat egin zan. Urteak kirola egin barik egozan 10 persona hartu eta test batzuk egin eutseezan euren personalidadea aztertzeke. Ondoren, 6 hilabetetan zehar ariketa fisikoa egiten hasi ziran modu progresibo baten eta bi hilabeteko testak egiten eutseen, jarkera aldaketea aztertzeke. Emoizetan ikusi zan zelan jentek gero eta motibazio handiagoa eukala, eta, ondorioz, bizitzako hainbat gauza aurrera aterateko gai ikusten ebala bere burua. Beraz, kirola eta motibazioaren arteko erlazino oso estua dala egiaztatu zan.

Ikuspuntu mediku batetik, honek zerikusia dauka ariketa fisikoa egitean sortzean diran endorfinakaz. Honek, ongizate sensazioakaz lotuta dagoz. Kirola egitean gorputzak endorfinak sortzean ditu eta, ondorioz, ondo sentitzean, ekintza hori errepikatzeko gogoia izaten da.

Baina, ariketa fisikoa edo kirola egiteko ez deusegu endorfinen ondorioai etxon behar. Kontuan izan behar dogu gero eta urte gehiago bizi garala eta, behintzat, zahartzarora heltzekotan bizi-kalidate onean heldu behar garala. Baina, ez gara konturatzen adin nagusira ondo heltzeako urte luzeetan egin behar dala lan, eta zaindu ezean, edadeak dakarzan minak bikoztu edo hirukoztan dirala. Horregaitik nigaz egoten diran taldeetan, astean birritan egiten doguz ariketak gorputzarentzat larregi ez izateko, baina era berean, ondorioak nabaritu ahal izateko.

Azken finean, bizitza holangoa da, dana da barneratzea, norberaren bizimoduaren parte bilakatzea. Egunean zehar momentua topau behar da, norberaren burua eta gorputza zaintzeako.

egiten dogu. Ariketa fisikoak burua eta gorputza nekatu egiten ditu eta momentu horretan arazoak bazter baten ixteak, barriro hartukeran beste ikuspegi bat emoteko gai egiten gaitu.

Beste alde batetik, aitatu beharra dago ikertzaileak "superazio gradu" deitzean dabena. Personeak ariketa fisikoa egitean, helburu eta helmuga batzuk jartzen deusaz bere buruari, eta lortzean doan

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Endorfinak Batz gurea

MONDRAGON

LUMATUTEN



MAITE ARTABE

Tatuajeak
azaletan

Kontetan eustan Arteako tio Gergoriok zelan Mari etorten zan Anbototik Gorbeira udan, neure moduan.

Uda partean Larrazabalen nengoala gauetan afalostean egoten ginan zeruari begira Mariren ibilaldiren bat ikusiko zain. Eta ikusi be bai lantzean behin bere izar uxu itxuran.

Udaldia emoten etorten ei zan eta hemengo lurrak plazer handiz ikusten ei ebazan bertoko lur azalaren ederraren ederraz mire eginda. Ohian honetako señora izateaz harro.

Harrezkero begituten deutset zeruari eta lur azalari. Naturearen kontenplazioak emoten deust sosegurik gehien eta ekologiaran alde zientifikoa ezututen ez badot be, emozionala narruazalean tatuata daroat.

Gaur errepidetik nentorrela Zeanuri eta Areatza artean ikusi dodan triskantzeak ziztada egin deust bortitz. Tatuajea handituz

doa, zelan inguruko lur azalean halan nire narruazalean.

Beroak, Mariren zain gengoan gau hareek ekarri deustaz gogora.

Zer eretxiko ete deutso orain Marik Arratiako lur azalari? Eta emoten deustagun trataereari?

Lehenago esan dodan lez, gaur ikusita lur azalak ageri dauan tatuajea: pinuak atara ostean ustiatzaileak zelan itxi dabezan lurra eta horretarako erabili dabezan bideak bertan behera hondatuta urteetarako; neuri be beste ziztada batek markau deust narruazala. Natureari daukotsadan enpatiak baliabide moltsua baino gehiago dala dinosta eta maitasun beste errukiz begituteran naroa.

Ez dakit zer pentsatuko ete dauan Marik Arratiako kanterak eta pinudiak aterateko triskantzen inguruan baina sentidu, nire ziztada bera sentiduko dauala jakin dot bat-batean gaur.

ZERTZEAN



JANIRE LOPEZ

Faroltxoak untzean eskegita jarraitzen dau bildurak lotsagarri diranean; eta itsasora aspaldi jausi zan botila naz ni, baina ez daukat, daborduko, barruan mezurik.

Arrakalatu jatan, egunez egun, azala, disolbatu letrak, olatu artean. Zelan ahaztu, orain, izen guztiak? Nori egotzi hainbeste heriotz? Nori, hainbeste eraso?

Faroltxoa haizeak laztanduko dau negu hotzak hala agintzen dauanean, eta kaiaren kontra suntsitzear dan botila naz ni, baina ezin dot nigaz itotzera inor behartu.

Urperatu ziran barruan nebazanak, barruan zer edo zer oraindik bazan... Nogan topatu, orain, galdutako fedea? Nogan zoriona, tristezia bera poztasuna baino maiteago dozunean?

Faroltxoak untzean eskegita jarraituko dau, itxaropenak zentzurik ez daukanean, baina bizi-bidaian erraiak hustu zituen ontzia naz ni, eta oraindik ez nau inork irakurri.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Oporretan joateko mailetea prestatzen egongo dira honezkero arratiar asko eta eurei gogora arazo gura deutsegu, eguzkitarako krema eta bainujantziagaz batera, argazki makinea edo, ezpabere, ipad edo erretratuak aterateko beste gailuren bat ez aitzuteko. Izan be, uda, denpora librea gozatzearan sasoa izateaz gainera, BEGITUK antolatuten dauan Argazki Lehiaketeara be bada. Eta zuon oporretako argazkiak geugaz konpartiduteak saria dauka.

Argazki Lehiaketearen oinarriak:

- 1- Parte hartzaileak: BEGITU Aldizkaria jasoten dauan edonor.
- 2- Gaia: argazkiak 2015 urtean egindako biajeetan edo oporretan egindakoak izango dira.
- 3- Lanen ezaugarriak: aurkezten diran argazkiak, non, nok eta noz atera diran esan behar da. Gehienez 3 argazki bialdu ahal izango da personako.
- 4- Nora bialdu: argazkiak begitu@topagunea.com helbidera bialdu behar dira.
- 5- Aurkezteko epea: urri lehenengoaren 25era arte aurkeztu daitezke argazkiok. Abuztua eta urri lehenengoko zenbakietan argitaratuko dira batzuk. Dana dala, horrek ez dau esan gura argitaratutako horreek dirala irabazleak.
- 6- Epaimahaia: BEGITU Aldizkariako erredakzino taldeak osotuko dau.
- 7- Epaia: epaimahaia urri lehenengoaren bigarren hamabostaldian batuko da epaia emoteko eta urri bigarrenean argitaratuko da aldizkari honetan.
- 8- Saria: persona birentzako astegoiaren bat Euskal Herriko landetxe baten.
- 9- Oharra: lehiaketa honetan parte hartzean dabenak honeek oinarriok onartuten dabezala esan gura dau.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarrabia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbaita 101
R.P.S. 21/06

begitu
arratia ubide zeberio

LEMOA

Kuadrilan biziteko jaiak

LEMOAko Jaiak 2015

KONTZERTUAK
Elizondon

Uztailak 30 Julio
eguna - jueves

23.30 GANSOS ROSAS
01.30 OXABI ERROMERIA TALDEA

Uztailak 31 Julio
barikua - viernes

22.30 Txikien Play Back Lehiaketa /
Concurso Infantil Play Back
23.30 SKAKEITAN
01.00 Nagusien Play Back Lehiaketa /
Concurso Adultos Play Back
02.00 BABEL COVERS

Abuztuak 1 Agosto
zapatua - sábado

23.30 BONGO BOTRAKO
01.30 TRIKIZIO

BONGO BOTRAKO

LEMOA
Jai Batzordeak

Erredakzioa

Jaiak hasikerea emoteko txupina Luci Linares, Arantza Martinez eta Mari Carmen Chicon Garsu-ren egileak, botako dabe garagarriaren 30ean arrastiko zazpiretan. Dana dala, aurreko egunean, kirolaren inguruko hainbat ekitaldi egingo dabez lemoaztarrak jai giro ederrean.

Bost eguneko jai egitaraua pres-tatu dabe Lemoan, egun bakotxa, eguaztenetik domekara, gai baten inguruan. Kirol Eguna, Mozorro Eguna, Euskal Jaia eta Play-back Gaua, Gastronomía eta Gaupasa Eguna eta Alkartasun Eguna dira gai honeek. Eta egun bakotxean goizetik gauera arte ekitaldi piloak kuadrilan

ondo pasetako. Kontzertuak, erro-meriak eta Play-back Lehiaketeak ipi-niko deutsee eritmoa gauai; egunai umorea, barriz, baltsen jeitsiereak eta rally umoristikoak, besteak beste.

**Garagarriak 29, eguaztena
Kirol Eguna**

12:00etan, umeen pentatloia: ur probak kiroldegian.

17:00etan, 15 urtetik beherakoen Futbito Txapelketearen finala.

18:00etan, 15 urtetik gorakoen Futbito Txapelketearen finala.

18:30ean, esku pelota finala, kiroldegian

19:00etan, Padel eta Frontenis Txapelketen finalak, kiroldegian.

20:00etan, Zumba saioa, eskoletan.

20:00etan, Mozorro Lehiaketa (garagarriak 30) eta rally umoristikoan (abuztuak 1) parte hartzeako izen emotea kiroldegian 21:00ak arte.

Partiduak amaitutakoan, kopaua egongo da parte hartzaile guztientzat.

**Garagarriak 30, eguna
Mozorro Eguna. Gaia: zientzia fikzioa**

18:30ean, jaietako kartelen erakusketea, udaletxeko plazan.

19:00etan, txupinazoa eta jaietako Kartel Lehiaketearen sari banaketea, udaletxeko plazan.

21:00etan, kuadrilen afaria kiroldegian.

22:00etan, disko animazioa kiroldegian.

23:30ean, kontzertua, Gansos Rosas (Guns and Roses-en omenez).

01:30ean, erromeria Elizondon Oxabi taldeagaz.

**Garagarriak 31, barikua
Euskal Jaia San Antonio plazan eta Play-back Gaua**

11:30ean, XVIII. Artisautza Azokea Atxeta taberna ondoko plazan.

12:00etan, mezea San Inazio base-lizan.

12:45ean, Durundi Bari Dantza Taldea eta Lemoako Abesbatzaren ekitaldia San Inazio plazan.

18:00etan, Igel Txapelketea 17 urtetik beherakoentzat.

18:30ean, Igel Txapelketea 17 urtetik gorakoentzat.

18:30ean, Xaibor, txiki eta gazteen diskofesta, San Inazio plazan.

19:00etan, Bola Txapelketea 17 urtetik beherakoentzat.

19:30ean, Bola Txapelketea 17 urtetik gorakoentzat.

20:00etan, baltsen jeitsierea Ibaizabaletik. Urtekerea Tallerretan eta helmuga zubi barrian.

22:30ean, 12 urtetik beherako lemoaztarraren Play-back Lehiaketea.

23:30ean, Skakeitan taldearen kontzertua Elizondon.

01:00etan, 12 urtetik gorako le-

moaztarraren Play-back Lehiaketea Elizondon.

02:00etan, erromeria Babel Covers taldeagaz. Elizondon.

Oharra: Egunean zehar baserriar jantzita dagozanai, plazan taloa eskuratzeke txartela emongo jakie. Txartelak 13:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:00etara bananduko dira.

**Abuztuak 1, zapatua
Gastronomia eta Gaupasa Eguna**

11:00etan, ume eta gazteentzako puzgari parkea eta jolasak eskoletan.

14:15ean, Bits Jaia eskoletan.

13:30ean, Paella, Tortilla, Gisau eta Bakailao Lehiaketeak lapikoen aurkezpena eskoletan. Ondoren, herri bazkaria.

17:00etan, ume eta gazteentzako tailerrak eta jolasak, Zaztaparrak eta Eskoziara doazen gazteak alkarlanean antolatuta eskoletan.

17:00etan, Mus eta Briska Txapelketak.

19:00etan, kuadrilen arteko rally umoristiko musikatua. Jubiladuen tabernatik hasita.

19:30ean, jantzaldia Herradura tabernako plazan.

20:30ean, Tango, Bals eta Pasodoble Lehiaketea. Herradura tabernako plazan. Izen emotea 19:30etik 20:00etara.

20:30ean, Arantza eta Ehiza alkar-teak sardina jana eskeiniko dau. Herradura tabernako plazan.

23:30ean, Bongo Botrako taldearen kontzertua Elizondon.

01:30ean, erromeria Triki-zio taldeagaz Elizondon.

05:00etan, barauskarria Elizondon. Oharra: Arratiako herrietatik pasauko diran bueltako autobusen urtekereak, goizaldeko 02:30ean eta 04:30ean izango dira Correos-etik.

**Abuztuak 2, domekea
Alkartasun Eguna**

19:30ean, Eusko Label okeleagaz egindako hamburgesa dastaketea Elizondon. Pintxoak 1,5 eurotan salduko dira eta jasoten dan diru guztia La Cuadri del Hospi alkar-tearentzat izango da.

22:00etan, Garsu erre Elizondon.

ARRATIA

Igorretik Dimara martxea Herriko Tabernai babesa emoteko

Erredakzioa



Igorreko konzentrazioa.

Bagilaren 27an, Herriko Tabernako ordezkariak deituta, Igorreko Axular Herriko Tabernatik abiatu eta Dimako Jentilzubi Herriko Tabernara oinez joan ziran 90 lagun, "Herriko Tabernak libre eta zabalik" aldarrikatzeko. Izan be, bagilaren 17an Auzitegi Gorenak 107 Herriko Taberna konfisketea berretsi eban, Auzitegi Nazionalak eskatzen eban legez. Epai horren ostean desagertzeko arriskuan dagozan Herriko Tabernen artean, Igorrekoa eta Dimakoa dagoz.

Herriko Tabernen ordezkariak, epai hau "lapurreta" dala esan eban eta jentea Herriko Tabernak defendiduteko mobilizazioetan parte hartzeako eskatu eban.

Agerraldia Igorren

Bagilaren 18an, epaia jakitera emon eta segiduan, 80 lagun inguru bildu ziran Igorreko Kultur Etxeko parean konzentrazioa egin eta Auzitegi Gorenaren sententzia salatzeke.

Jai batzordeak eta Lemoako Udalak

Gora San Inazioak!

JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

Kili-Kili

Umeen denda
94 673 63 51
Agire Lehendakaria 10
Igorre
kilkiligorre@gmail.com

Bizkaifisios SLK
bi zentro ditu

Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1, Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

24h
Eguneko Ogia

EGUNEKO OGIA
vendin pan

IGORRE
Lehendakari Igorre

OPEL

Ibaigane, S. Coop. Ltda.

Estazioa, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Telf. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

ARRATIA

Aire zabaleko piszinak zabalik Areatzan eta Lemoan urriak arte**Erredakzioa**

Areatza, Igorre eta Lemoan ugerlekuak dagoz udan. Honeek uger egiteko edo bustialdi bat hartzeako aukerea emoten dabe. Areatza eta Lemoako aire zabaleko udal igerilekuak, uda partean baino ez dagoz zabalik. Igorreko piszinak, kiroldegikoak, urte osoan zabalik egon arren, udan ordutegia aldatuten dabe eta hamabost egunetan zarratu egongo dira.

Areatzako piszinak zabalik egongo dira urri lehenengoaren 6ra arte, goizeko 11:00etatik iluntzeko 20:00ak arte. Lemoakoak barriz, urri lehenengoaren 13ra arte egongo dira zabalik. Goizeko 11:30ean sartu eta uretan 19:30ak arte egon daiteke, instalazioak 20:00etan zarratzen dabez ateak eta.

Igorreko ugerlekuak

Garagarriean, astelehenetik barikura 09:00etatik 21:30era dagoz zabalik Igorreko ugerlekuak; zapatuetan 09:00etatik 21:00ak arte eta domeketan 10:00etatik 14:00etara. Abuztuan aste bi egongo dira zarratuta, abuztuaren 17ra arte eta gero, astelehenetik zapatuta 09:00etatik 15:30era egongo dira zabalik. Domeketan zarratuta egongo dira.

Ludotekea igerilekuan

Uger egiteko bakarrik ez, olgetako be leku aproposak dira igerilekuak eta Lemoako Udalak ludoteka zerbitzua igerilekuan emongo dau hilaren 13tik 24ra eguraldia ona bada. Hiru eta hamabi urte bitarteko umeentzat izango da 11:00etatik 14:00etara.

**Areatzako ugerlekuak.**

ARRATIA

Arratia, eta inguruetako enpresak negozio aukera bila**Erredakzioa**

Bagilaren 25ean, eremuko eraikuntza, zerbitzu, metalurgi eta ingeniari sektoreetako 30 konpainia eta ETE batu ziran IV. Enpresa Topaketan. Jardunaldiak Arratiako Mankomunidadeak eta Galdakaoko Behargintzak bultzatzen ditu, enpresai alkar ezetuteko aukerea emoteko; holan etorkizunean lankidetzan behar egitea errezteko.

Topaketan, parte hartzaile bakoak bere burua aurkezteko aukera euki eban, baita bere negozio unidatea eta plan estrategikoak azaltzeko. Ondoren, euren merka duarentzat estrategikotzat jotzen dituen enpresak hartu-emonetan jarri ziran partaidea. Beste batzuen

artean, Ekoleds, Batz, Comecaran, Eulen eta Ilunbe SA enpresak hartu eban parte topaketa honetan, negozioak egiteko formula barrien bila. Aurreko edizionetan 80 enpresatako 150 lagunek baino gehiagok hartu eban parte Arratia, Galdakao eta Amorebieta-Etxanoko Enpresa Topaketetan.



ARRATIA

EAEn frackingari oztopo handiak ipinten deitsazan legea onartu da**Erredakzioa**

Bagilaren 30ean Legebiltzarrak frackingari hiru baldintza ipinten deitsazan legea onartu eban. Holan, inguruneko ebaluazio estrategikoa egin beharko da; hau da kalteak orokorrean neurtu beharko dira eta ez putzuz putzu. Urbanizau ezin diran lurzoruetan ezingo da frackingik egin, ingurumen kalteak gertatu badaitezke eta akuifero eta kargatze zonetan, urrakotasun erdi mailakoa, altua edo oso altua bada -praktikan EAE osoan- frackinga debekatu da.

Lege hau Herri Ekimen Legegilearen (HEL) frutua da eta EH Bilduk, PSE-EEK eta PPK lortutako akordioari esker urten zan aurrera. EAJ-PNV eta UPyD abstenidu egin ziran.

EH Bilduk, PSE-EEK eta PPK lortutako akordioa

Frackinga debekatzeko Herri Ekimen Legegileak (HEL) bere frutuak izan ditu eta debekua ez bada totala be, oztopoak ipintea ahalbiderratu dau EH Bilduk, PSE-EEK eta PPK lortutako akordioak. Holan, EAEn, Lur, Ur eta Ingurugiro legea

erabili dabe frackinga eragozteko.

Bagilaren 16an Legebiltzarrean egin zan frackingaren kontrako HELa tramitetako bigarren eta azken batzarra. Zazpi egun lehenago izan zan lehenengoa, eta han, EAJ-PNVk bost urteko luzamentua eskatu eban. Bilduk eta PSE-EEK, barriz, lege sektorialak erabilteko eskatu eban frackinga eragozti ahal izateko. Bigarren bide honeri PP lotu jakon gero, eta aurrera ateratu da.

EH Bilduk eta PSE-EEK emendakinak sartu ebezan Herri Ekimen Legegileak, urbanizau ezin diran lurzoruetan, haustura hidraulikoa

**Arratia, gasa eta dauan ikertzeko proiektuen eremuan dago.**

ARRATIA

Sexu askatasunaren aldeko banderea ipini dabe Mankomunidadean**Erredakzioa**

Bagilaren 28a Sexu Askatasunaren aldeko Nazioarteko Eguna dala eta, Mankomunidadeak sexualitatea askatasun osoz biziteko eskubidea aldarrikatu gura izan dau, giza eskubideetan oinarritutako gizartearen sustatzen dau-lako. Hori dala eta, adierazpen instituzionala onartu eta Sexu Askatasunaren aldeko Nazioarteko Egunaren banderea balkoian ipini eban.

Adierazpen horretan Arratiako Udalen Mankomunidadea konprometidu da Bardintasan politikan askatasun sexuala xertatzera; gure herrietan gertatzen diran transfobia, lesbofobia eta homofobia kasuak jasotera eta arretara bideratzera eta sexu askatasunaren alde lan egiten daben alkarteak lagundu eta babesa eskaintzera, batez be LGTBIQ alkar-

teai eta alkarte feministai. Izan be, "sexua, generoa eta sexualitatea baxotxaren nortasunaren elementu sano garrantzitsuak dira, eta askatasun osoz egin beharreko aukerea izan behar dau. Jokaera jakin batzuen inposaketa sozialak, alde batetik, maskulinitate eta feminidate eredu estereotipau

**Arratiako Udalen Mankomunidadeko eraikina.**

eragozteko, eta ura kutsatzeko arriskurik bada, berau debekatzeko. Ingurugiroko ebaluazio estrategikoa be eskatzeko emendakinak sartu ebezan EH Bilduk eta PSE-EEK.

Balorazioak

Fracking Ez Arratiak prozesuaren sano balorazio ona egin dau. "Mobilizazioak funtzionetan dau. Alderdiak gure posizionamentutara bultzatzen joan gara atzean dagoan indarrari esker. Herri mobimentuaren garaipen moduan hartu daiteke" dinoe. Onartutako legea bide onean doala uste dabe baina legeak eta alderdiak mobidu dabezala hurrengo pausuak adierazoz bertan behera geratu behar dala eta EAetik kanpo SHESAK dituan planak Espainiako Gobernuak gelditu behar dituala uste dabe.

Fracking Ez Zeberio Plataforman be balorazio positiboa egiten dabe HELe frutuak izan ditualako, baina plataformako arabera partiduen estrategia bat izan da debeku totala ez ezartzeko. "Lege bat ateratea partiduen estrategia izan da. Holan, Herri Ekimen Legegileak eskatutakoa leuntzen da eta debeku totala saihesten da". Gainera salatu dabe "jente guztia" frackingaren kontra agertu arren, ez dala egon partidu guztien aldetik kontra egiteko prestutasunik. Hori dala eta, EAJ-PNVri eta UPyDri frackingaren kontra egitea eskatzen deutsee.

eta sexistak gauzatzen ditu, eta bestetik, gorrotoa eta indarkeria sustatzen dau parametro horreetatik kanpo dagozan jokabideen kontra".

Herri txikerretan zailtasun gehiago dagozala sexualitatea era askean biziteko LGTBIQ kolektiboarentzat azpimarratu dau AUMK.

Udaletxeetako balkoietan be banderea

Arratiako udaletxeetan be bisibilizau gura izan eban sexu askatasunaren eskubidearen aldeko konpromisoa banderak balkoietan ipiniz. Holan egin eban, Artean, Diman eta Igorren barbarako.

ARRATIA

Diman herri konsultarako alkartea eta lantaldea sortuko dabe urrietan

Erredakzioa

Bagilaren 21eko Gure Esku Dago dinamikearen ekitaldietan parte hartze handia izan eban Arratiak. Dimatik, barbarako, lau autobus urten ziran Bilborantza. Oihal katean, bata bestearen ondoan egon ziran arratiarrak Bilboko udal-letxe eta Areatzaren arteko Sendekalean. Eta San Mamesen, iragarritako moduan, protagonismoa euki eban Dimak. Izan be, Diman grabautako bideoa erakutsi eben bertan eta herriko ordezkari bik 2016an herri galdeketea egiteko beharrean jarriko dirala "alkarregaz prozesu guztia adostu eta pre-paretako" esan eben. Ondoren, Ispaster eta Dimako ume batzuek hautestontzia hartu eta han egoan jente guztiari erakutsi eutsien.

Urrietan, Ispasterren eta Diman 2016an herri galdeketea egiteko prozesua abiatuko dabe, aurretik Arrankudiagan eta Etxarrin egin eben legez. "Orain lasaitasun apur bat hartuko dogu eta oporren bueltan batzarra egingo dogu. Batzar irekia, gura dauan jente guztia

hurreratu daiten. Batzar horretan alkarte bat sortu behar dogula azalduko dogu, eta zein izan leiten aurrea begirako kronograma eta eginkizunen zerrrendea. Hortik jaioko da kontsultea egitera deituko dauan alkartea eta lantaldea" azaldu deusie BEGITURI Dimako taldekoak.

Herri bat

Bagilaren 21eko ekitaldiaren gaineko balorazioak egiten dabiz herrialde guztietako taldeak eta horreek alkartu eta aztertu ondoran, garagarriaren 4an emongo dau jakitera Gure Esku Dago dinamikeak bere balorazioa. Dana dala, Arratiakoak, San Mameseko ekitaldia "emozinoz beterik" egon zala dinoe, eta "amaierara heldu orduko, herri bat izan ginan, borondate bat zelaian".

San Mamesen aulki hutsak egon ziran, baina antolatzaileen esanetan, beharra hasi baino ez da egin. Urrietatik aurrera "berba egin, alkarrereri entzun, eta bidea eta galdera adostu" beharko dabe GEDkoak.



ARRATIA

Udan hilean behin aterako da BEGITU

Erredakzioa

BEGITU hamabostekariak, 22 zenbaki ateraten ditu urtean, bertako beharginak oporrak hartu dagien. Hau da garagarriaren eta abuztuaren hile bakoitzean, zenbaki bakarra kaleratzen da, hile hasierako. Holan izango da aurten be eta garagarriaren eta abuztuaren hilaren erdiko zenbakirik ez da

egongo. Hurrengo zenbakia beraz, abuztuaren 3koa izango da.

Urri lehenengoan, barriro be, hamabostero kaleratuko da BEGITU.

begitu
arratia ubide zuberio

ARRATIA

Jana konpartidu eta jantza egiteko jaiak auzuneetan

Erredakzioa

Garagarri ugaria da auzune eta ermita inguruko jaietan. Askotan ospatutako modua, santuaren izenpeko ermitan mezea eta ostean, trikitixearen musikeagaz lagundutako barauskarria izaten da. Jai egitaraua luzeagoa danean, jana konpartidutako herri bazkari, afari edo lehiaketa gastronomikorik ez da faltauko, ezta kontzertu edo erromeriarik.

Oraingo hilean, santomasak, sankristobalak, santamañeak, San Segismundo, madalenak, santiagoak, santanaka eta saninazioak ospatuten dira.

Areatzan ospatuten dira santomasak hilaren 3an eta hurrengoak sankristobalak dira, hilaren 10ean.

San Kristobal (Igorre)

Garagarriak 10, barikua

12:00etan, mezea.

13:00etan, Arratiako txoferren arteko Maniobra Lehiaketa.

19:30ean, kubatar saltsa.

21:00etan, parriladea eta musikea.

Garagarriak 11, zapatua

18:00etan, Tortilla eta Makailao Txapelketetarako izen emotea.

19:00etan, umeentzat Imanol Iturriño magoa.

20:00etan, tortillen aurkezpena.

20:30ean, makailao kazuelen aurkezpena. Tartean, plazako arbola landuko da motozerraz.

22:30ean, kontzertua Etorkizun beltza eta ondoren erromeria Akerbeltz taldeagaz.

Garagarriak 12, domekea

13:00etan mezea.

13:45ean Arantzarteren emonaldia.

14:15ean Igel Txapelketa.

Hilaren erdialdean, Santa Marina, San Segismundo eta Madalenak daukaguz. Santa Marina edo santamañe eguna, hilaren 18an da eta Artean eta Dimako Bargondian ospatuten da. Lemoako Tallerreta eta Lemorieta jaiak egun honetan izango dira aurten. San Segismundo Zeberioko Upon ospatuten da.

Madalenak garagarriaren 22an dira eta Dimako Lamindaon eta Ubiden ospatuten dira. Atzen honetan, Paella Lehiaketa, sardina jana eta erromeriarik ipiniko dabe jai giroa egun osoan.

Tallerreta eta Lemorieta jaiak

Garagarriak 18, zapatua

11:30ean, txupinazoa, kalejirea eta poteo musikatu Atutxen.

14:00etan, sailheski eta txanpinoi jana Zementoseko etxeetan. Bazkalostean, Argentinatik etorritako magoaren ikuskizuna *Magia en zapatillas*.

Arrastian, jolasak eta Tortilla Lehiaketa.

19:30ean, tortillen aurkezpena eta Auzoko Piper eta Tomate Lehiaketa.

20:15ean kontzertua Chacarera bikoizta. Amaitzeko jaietako panpina erre.

Hilea jai giroan hasi eta amaituten da. Izan be, 25ean Santiago eta 31n San Inazio jaiak dira. Santiago Artean, Diman eta Zeanuriko Ipiñaburun ospatuko dabe. Baita Lemoako Arrañon be, mezea eta barauskarriagaz.

San Inazio egunean, barriz, ohitua dago Gorbeiaiko kurutzera igoteko. Bizkai osoko jaiak da eta Bizkai osotik etortzen dira mendizaleak Gorbeia igoteko. Egund honetan, kotxe kopurua murrizteko, autobus zerbitzua egoten da Areatzatik Pagomakurreraino.

IGORRE

Araluceko enpresa batzordeak lan baldintzak okertzen doazala salatu dau

Erredakzioa

Enpresa Batzordearen arabera, enpresek lan baldintzak kaltetu dabean neurriak ezarri ditu: lehenengotik malgutasuna aplikauzan, gero suspensiozko Enplegu Erregulazio Espedientea eta orain soldata murrizketea. EEEda abuztuaren 31ra arte dago indarrean eta beharginen % 90ari eragiten deustso.

2013ko abenduan langileak, prensaren bidez, jakin eben GESTAMPek Roberto Arenasari eta Atzerriko Inbertsio funts bateri saldu eutsala Araluce. "Zuzendaritzak lan karga eta langile guztien enplegua eta lan baldintzak ziurtatuko ebazala azaldu arren, denporeagaz ikusi da azalpen horreek gezur hutsa ziralda" azaldu dau Enpresa Batzordeak prentsa ohar baten bidez. Fakturazino

datuak % 50 jaitsi dira 2013tik hona.

Hasikeratik beharginen ordezkariak bideragarritasun plana eskatu eta erronda instituzional bat hasi eben aprilaren 29an. Atzen bilera bagilaren 16an izan eben. Igorreko alkateagaz, Arratiako Udalen Mankomunidadeagaz eta Eusko Jaurlaritzako Industria eta Enplegu sailtako ordezkariak batu dira Aralucekoak.

ARRATIA

Jaietan, zer?

Erredakzioa

Eguneko eta gaueko ohiturak aldatzen doguz udan. Egunez, hondartzara edo mendira joateko, edo biabe bat egiteko aukera emoten deuskue oporrak. Eguraldi onak, barriz, horretarako atakia. Herriko jaiak gauez urteteko aukera eta atakia dira. "Eta berriz izango gara zoriontsu edozein herriko jaietan" dino

kantuak.

Gaur galdetu gura deutsegu gure irakurleai, ea euren herriko jaietan parte hartuko daben. Hau da, ea kuadrila edo lagunak kontzertuetara joango diran, erromerietan jantzen egingo daben edota lehiaketa gastronomikoetan parte hartzean animauko diran, barbarako.

Beraz, haxe da itauna:

Herriko jaietan herrian egongo zara, jaietz disfrutatuko?

Eta erantzun posibleak:

a) Bai.

b) Neure herriko jaietan eta inguruko jaietan be bai.

c) Ez. Kanpoan egongo naz.

Arratiako produktuak, produktu prezia duak

Aurrekoa inkestan jakin gura izan genduan ea gure irakurleak Arratian produzidutako elikagaiak jaten dabean. BEGITU baserrietara heltzean dala argi dago ze inkestari erantzun deustsan % 85,71k erantzun dau baietz. Arratiako produktuak jaten dabezala ortua daukielako. Beste % 14,29k be Arratiako produktuak konsumiduten dituala erantzun dau, azokan edo dendetan erositako.

MEATEGIAK

Ubideko urregorriaren bila

Ez zan Kaliforniako basamortu idorra arratiarrak urre bila erakarri ebazan bakarra, ezta Alaskako zelai hotzak be.

Ubiden bertan XVII. mendean "urrearen sukarraldia" bizi izan eben antza. Udabarriko kalentureak geu be eroan gaitu Ubideko "San Jose" meategi zaharreraino.


Alvaro Rabelli

Jakina dogu Ubide Zubizabal eta Undebe erreken alboan eregi ziran burdinolen kerizpean sortu zana. Burdinola horreek (Zuazola, Aurtenola, Sartenera, Ubidea...) mailu hotsez bete eben ingurua, eta etxe ondoak eskorioaz, oindino ikusi daiteken moduan. Erdi Arotik XX. mendeko lehenengo urteetara doan tartean Ubide berebiziko lekua izan zan burdinaren langintzarako. Ura baeukan, mailu eta hauspo hidraulikoak mobidu arazoteko, baita egurra

be, labak eta arragoak behar eben ikatza egiteko, Gorbeialdeko pagadi sarrietatik ekarria. Eta burdina be baeukan, gitxi baina, inguruko meategiak ez ziralako inoz aberatsak izan. Halanda be, egon baegozan holango burdin-hobiak, txikerrak, gure mendietan han-hemen sakabanatuak. Gurean hain ezagunak izan ziran olagizon eta ikazkinai beste ogibide bat gehitu beharko geunskie, meatzariena, Arratian burdinaren langintzak euki dauan garrantzia aintzat hartuko badogu. Ubideko burdinolak akordu hutsa diran

**San Jose meategiaren arrastoak.**

horretan ubidezarrak burdina ateraten eben meategi horreetariko baten bila jo dogu, baita topau be.



Erdi Arotik XX. mendeko lehenengo urteetara doan tartean, Ubide berebiziko lekua izan zan burdinaren langintzarako

San Jose meategia

Udabarriko egun baten, alozoko denporea lagun, San Jose izeneko meategia topeteari ekin deusagu. Horretarako Emilio Luengas euki dogu gidari. Izan be, Emilio, Urduñakoa dan arren, meategi horren jaubeen ondorengo da, Zeanuri eta Ubideko Ibergutxi leinukoa hain zuzen. Jose Benito Ibergutxi, Emilioren birraitita, izan ei zan meategia ustiari eban atzenengo jaubea, XIX. gizaldiko azken urteetan. Edozelan be, Ibergutxitarrak, burdinola eta errota batzuen jaubeak be baziranak, modu batean edo bestean, San Jose meategiari lotuak agertzen dira XV. mendetik, batzuetan Ubideko konbentuarien onuradun lez, Eleiz Barrutiko artxiboko dokumentazioak erakusten dauan moduan.

San Jose meategia Uratza deritxan parajea dago, Ubideko erdigunetik ez oso urrin, N-240 ka-

belagorri
mediku naturista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elikagai biologikoak
zeliakoentzat elikagaiak
estetiziana
Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

BICIS CAS
Arratiarron dendea
JESUS CANAS TARAVILLO
Tel. 94 630 92 20
jscanas@movistar.es
Gregorio Mendibil kalea, 12
BICIS BIZI
www.bichamoredieta.com • AMOREBIETA-ETXANO

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima
946 317 252
608 287 249

minoaren ganean, Solozarretako gaintxuko altzoan, pagadi eder baten erdian. Bertako toponimiak berak, Zeanuri, Dima, Otxandio, Ubide eta Legutiano batzean diran lurretan, ederto baten erakusten deusku meagintzak antxi-nean inguru honetan euki eban garrantzia. Minazuloeta, Minako txarkoa, Minazaharra, Minagain leku-izenak dira horren esenplu. Bada, Uratza errekeari jarraituz izen bereko iturburura ailegauta, non eta erreka ondoko urbegi batetik oindino sulfuro-urak urtetan dauan, atoa topo egingo dozue San Jose burdina-meategi zaharragaz. Ez da erreza, halanda be, lehenengo begi kolpean ikustea, inguruari ondo erreparau behar jako, landaretzak dan-dana ostenduten daualako. Hurreratu ahala lur azpitik ateratako hondakin metak ikusiko dozuez lehenengo, eta ondoan mendiaren altzoan bertan egindako zuloak. Horreek zuloak lurpeko galeria zaharren agoak dira, gaur egun erdi estalita dagozanak. Indusketaren bat egin beharko litzateke jakiteko zelan dagozan horreek galeriaorreek barrutik, seguru asko sano sakonak ez izan arren. Bazterrean mea garbitzeko potzua, galeriak aireztatzeko tximonia modukoa dirudiana eta eskoria pilak be ikusi leitekez. Bertan eskoria arrastoak egoteak mea egosteko labaren bat egongo zala adierazoten deusku. Horrezaz gain, harrietan, azal-azalean, ondino ikusten da atera barik lotu dan mea, gure inguruko beste

meategi zahar batzuetan nekez jasoten dana.

San Jose meategiaren azken ustiapena XX. mendeko lehenengo urteetan izan bide zan. Hain zuzen be, Munduko Lehen Gerrak burdinaren eskaera ikaragarri handitu eban eta horrek oso aberatsak ez ziran meategi txikiak be ustiatzea ekarri eban. Horregaitik, behin gerrea amaituta, meategiok atoa galdu eben urte gitxitan euki eben errentagarritasuna eta bertan behera gelditu ziran, betiko gelditu be, eta horregaz batera gure arbasoak jardun eben ogibide berezi hau be bai. Handik gitxira Ubideko burdingintzak onenak emon ebazan, trenbideetarako untzeak egiten ebazan burdinola zarratu zan, azkena. Hortxe, beraz, amaitu zan Ubide herriaren historiaren pasarte garrantzitsu bat.

Urregorriaren sukarraldia

1640. urteaz gero, Felipe IV.aren erregealdian, Gaztelako erresuma egundoko krisaldi ekonomikoan murgildu zan, Europako gerrateak eragindako gastuak gehitu jakiezan Ameriketatik ekarritako aberastasunak sortutako inflazioa eta erresumako ogasun sistema orekatzeko porrota. Gauzak holan, erregearen menpeko lurralde guztietan, Bizkaian be bai, zerga handiak ezarri ziran. Horreek zergok nahikoak izan ez ziranean, erregeak baimena emon eban lurralde guztietako ondasunak ustiatzeko, eta batez be, monarkia espainiarrek behar eban urrea topetako.



San Jose burdina meategia, Uratza errekearen iturburutik hur dago

Horrela, ehunka monumentu megalitiko suntsitu ziran, horreetan urrezko altzorrek gordetan ziralakotan, eta San Jose moduko meategiak urre bila etozan meatzariak ezetu ebazan. Ubiden be, eleizgizon, bilau, ume zein olagizon, danak abiatu ziran inguruko mendietara meategi zaharretan aztarrika egiten, gosetik librauko ebazan zorioneko urrearen bila. Ubideko

"Far West" sasoia izan zan. Handik urte batzuetara Legutianoko Minagaineke kobreak beste sukarraldi bat piztu eban Ubiden. Dozenaka zulo egin ziran Motxotegi inguruan kobre-hobi aberatsak topetako esperantzaz. Ez zan kobre gehiagorik azaldu, aurrekoan urrerik agertu ez zan lez. Bakarrik burdina, berau be gorria, ubideztarren benetako altzorra.

MERKA LABELA-HARATEGIA

Etxeko produktioak:

- Txerizoaik
- Otoloizoaik
- Buzkantzak
- Salzitxak
- Harburgesak

Arraiztiako produktioak:

- Baserriko atxila
- Urtxak
- Baserriko arraiztiak
- Txarriak
- Harriak
- Geroika (fruta eta barazkiak)

Herrikoak: Leizorri, Leizorri Agirre 21, 94 679 61 37, www.leizorrikoak.net

ZEKUTZE
JATETXEA

Sabino Arana, 34
48040 IKORRE - Bizkaia
zikatorjatzeko@hotmail.com

Tel.: 94 631 52 83

Dia %
PEDRO
AUTOSERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

GARANTXE
Autoeskola

TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ

Baimenak: A1, A, B77, B

Lehendakari Agirre 31
Telefono: 94 675 71 32
48140 IKORRE (Bizkaia)
garrantxe@telefonet.net

BIZARGINAK

Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu

Bixarra egin eta txukunduten dogu

Elexalde, 20 Rober w 630 743 543
48.140 Igorre Manuel w 661 848 793

Beer & Edariak s.l.

HEINEKEN SOLARES

Felig Menditea, s/n. 48550 LEZMOA, Bizkaia
Tel: 090 481 830 eta 090 200 717

ARKEITEGI
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23. behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

SESOREAK
basolo Emaldi
FERRIN ADMINISTRAZIOA

Abokatuak

620. 57.86.04
asierabasolo@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

TXIRRINDULARITZEA

Oskar Garro pozik
Munduko Kopan
lortutako postuakaz

Erredakzioa

Ziklismo Egokitutako Munduko Kopan egin dituan postuakaz pozik agertu da Oskar Garro igorretarra. Italian eta Suitzan lehiatu da Garro mundu osoko ziklistakaz eta parte hartutako lau probetan lehenengo hogeiren artean sartu zan.

Bagilan izan ziran proba honek. Lehenengo erlojupeko proba izan zan, 26 km.koa eta 19. egin eban igorretarrak. Hurrengo lasterketan, 87 km.koa, 15. egin eban. Italiatik Suitzara joan zan gero hurrengo lasterketa biak Suitzan izan ziran eta.

Han be, erlojupekoan 19. egin eban Garrok, kaminoan, barriz,



Oskar Garro.

hamazazpigarren. "Pozik nago, lasterketak ondo egin nebazan eta urterik urtera hobeto nago" dino txirrindulariak.

Garagarriaren Bizkaiko Bira

Garagarriaren 18 eta 19an Bizkaiko Bira izango da eta igorretarrak "zeozer ona egiteko esperantzaz" ekingo deutso lasterketeari.

INGUDEA

Haizea Ziarrusta
dimoztarra Euskal Herriko
Ingude txapelduna

Erredakzioa

Ingudean hasibaria dan arren, Haizea Ziarrusta Euskal Herriko txapela eskuratu eban bagilaren 27an Diman. Herriko jaietan jokatu zan txapelketea eta Ziarrustak, publiko osoa bere alde eukala, igazko txapeldunari txapela kendu eta marka hobetutea lortu eban 92 kolpetan ipiniz.

Nafarroako kirolari bi, Arabako bat eta bizkaitar bi lehiatzen. Zorteak dimoztarraren alde jokatu eban, igazko txapeldun eta faboritoaren ostean tokau jakolako eta zenbat kolpe egin behar eban irabazteko jakin ahal izan ebalako. 92 kolpegaz lortu eban txapela eta aurreko marka apurtutea.

Entrenamenduak

Igazko Dimako jaietan Ingude erakustaldia egin eben Jose Mari Atutxa eta beste kirolari batzuk. Eurak egin ostean jentea ateraten hasi ziran eta holan probau ostean, eurekaz hasi zala entrenamenduak egiten dino Haizea Ziarrustak. Hasi eta gitxira istripu bat euki eta entrenamenduak bertan behera itxi behar izan eban dimoztarrak. "Hiru hilabete bakarrik entrenau dot. Ingudea astean hirutan eta fisikoa astean behin edo bitan egiten saiatu naz" dino.

Juan Mari Atutxa, Jon Loiola eta Ekhi Ziarrusta izan ditu entrenadore.

SEGA

Etxaburuagaz neurtuko da
barriro Irati Astondoa Euskal
Herriko Sega Txapelketan

Erredakzioa

Garagarriaren 12an jokatu da Aian, Euskal Herriko Sega Txapelketea andrazkoetan. Han, Irati Astondoa zeanuriztarra eta Alatzne Etxaburu tolosarra neurtuko dira. Astondoak txapela Arratiara ekarteko "esperantza gitxi" daukazala esan dau. Izan be, bagilaren 7an, gipuzkoarrak errez irabazi eutsan arratiarrari azkoran eta segan gipuzkoan egindako

desafioan.

Zeanuriko andra proba taldea

Hainbat herri kiroletako erakustaldi egongo dira ikusgai oraingo hilean. Horreen artean, Zeanuriko Andra Proba Taldeak egingo dituanak. Zeanuriko andrak Lemoan egongo dira hilaren 12an. Eta hilaren 25ean, Areetan, Laudioen kontra neurtuko dira arratiarrak.

DUATLOIA

Ia 60 ume
Dimako
Duatloian

Erredakzioa

Ibilien alkarteak antolatuta, Dimako Umeen II. Duatloia izan zan bagilaren 27an. Bertan 57 umek hartu eben parte. Lehenengotik txikerrenak, 0 eta 6 urte bitartekoak lehiatu ziran; gero 7tik 9 urte artekoak eta azkenean 10-12 urte bitartekoak. Kirolari apartak izateaz gainera lehiakortasunean gozaten badakiela esan eban Naia Alzola antolakuntzakoak. Umeak ederto pasau eben jai giro ederrean.



Haizea Ziarrusta.

Argazkia: Berna Gomez.

MOTORRAK

Beharrak ondo
eginda, oporrak

Irati Urien

Bagilaren 27an Cross Country lasterketea egin zan Elgoibarren. Berroa presente baina gerizpea lagun, emoitza onak lortu ebezan Arratiako mutilak. Hogeta hiru urtetik gorakoetan bosgarren egin eban Jon Zuazok eta hamaikagarren

Asier Zugazagak. Iban Ibarra lehenengo gelditu zan Senior hogeta hamar urtetik gorakoetan, eta kategoria bardinean hirugarren Josu Gorospe. Beteranoetan lehenengo egin eban Pedro Gorospek, baina kanporatua izan zan gasolinea behar ez dan lekuan bota ebalako.

Atzenengo lasterketea Gordexolan izango da hilaren 4an. Hortik aurrera urri lehenengora arte oporrak motordunentzat be. Honeek bueltarako hitzorduak: urri lehenengoaren 19an Cross Country Bergaran, eta 5ean Enduro Espinosan.

946 319 008
658 195 091
Hondartzara joateko zure bainujantzia eta bikini... Galanta.
SARTU FACEBOOKera
www.facebook.com/galanta.lenceria
Agirre Lehendakaria 23
48 140 Igorre
galanta@hotmail.es

GALANTA
zure barruko arropa
M. JOSE
barrutik janzen zaitu

Okindegia
+ Ke... PAN
Etxean bertan egindako pastelak

IGORRE
Lehendakari
Agirre 11
94 656 65 52
Sabino Arana 35
94 657 3898
AREATZA
Goiko kalea 8
94 608 90 47

ARA OTZ
Landerren O Jabetzen!

RUGBY
TABERNA

•Egin zaitetz bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

arratiako
instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

Graduazioak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

PELOTEA

Lemoako kluba Bizkaiko Herriarteko Esku Pelota Txapelketan azpitzapeldun

Arratiako klub bat Bizkaiko klubaren arteko finalera ailegetan dan lehenengo aldia izan da. Finala Markinako klubak irabazi eban.

Erredakzioa

Bagilaren 26an Lemoako Esku Pilota Taldea Markinaren kontra neurtu zan Kadete mailan, Gazte mailan eta Nagusi mailan. Garaipenik lortu ez arren, finalera heldu izana ospatutekoa izan da Lemoako klubarentzat. Izan be, txapelketan 28 klubek hartu dabe parte eta finalera iristeko Usansolo, Gernika eta Munitibar klubak kanporatu ditu Lemoak.

Bilboko Deportivo pelotalekua jentez gainezka egon zan bariku arrastian Bizkaiko Herriarteko finala ikusteko. Kadete mailako partidua oso gogorra izan zan

eta 22-21eko emoitzeagaz amaitu zan Markinaren alde. Partidu guztian zehar paretxu joan ziran lemoaztarrak eta markinarrak baina atzen txanpan markinarrak jarri ziran aurretik. Guztia emonda, Mikel Aurrekoetxea eta Julen Bengoetxea Lemoako pelotariak 21-21 jartzea lortu eben, baina azken tantoa markinarrak egin eben eta 1go puntu garrantzitsua euren klubarentzat izan zan. Partidu hau irabazi izan ezker, finala irabazteko aukerak baebazala Lemoak uste dau Aitor Erauzkin entrenatzaileak.


Bigarren partiduan, Gazte mailakoan, Unai Lejarreta eta Oier

Etxebarria Lemoakoak atzetik hasi ziran, 9-1 galtzean, eta hau erabakigarria izan zan partidu osoan zehar. Etxebarriak ez eban euki bere egunik onena eta azkenean 22-12 galdu eben. Eموitza honegaz txapelketea ebatzita geratu zan markinaren alde.

Hirugarren partidua oso gogorra izan zan eta norgehiagoka guztian oso paretsu ibili ziren Lemoako Ireber Eraña eta Joseba Bilbao eta markinarrak. Zoritxarrez partidu hau be Markinakoak irabazi eben 22-18.

Txapelketa ona

Txapelketea aprilan hasi zan eta



Lemoak ezin izan eban garaipena lortu.

pozik agertu dira Lemoako klube-koak. "Lehenengoz finalera heldu gara eta hau ospatzekoa izan da klubarentzat. Finala ez jaku gura genduan moduan atera baina sei pelotariak eukien guztia emon eben" dino Aitor Erauzkin Lemoako Esku Pilota taldeko entrenatzaileak.

Datorren urteari begira hiru

erronka planteetan ditue esku pelotakoak: pelota eskolea pelotari kopuruz handitutea, neska-mutil gehiagok disfrutau dagien kirol honegaz; Lemoako pelotariak ahalik eta txapelketa gehienetan egotea, eta aurkeztutako txapelketa guztietan ahalik eta emoitzarik onenak lortutea.

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)

KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.

Gratiasio Herri Irakastetxeak

Gure irakastetxeak

Euskalduna kalidadezkoa herrikoa

J.B. Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

2 urtean 18ra

BERBALDIA

Andra aymarak lider izateko formatzen dauz Alicia Canavirik sortutako CDIMAK**Erredakzioa**

Bagilaren 22an, Alicia Canaviri Mallcu, CDIMAREN fundatzailea (Centro de Desarrollo Integral de la Mujer Aymara) Areatzan egon zan Areatzako Emakumeen Foroak konbidauta. Canavirik beste hiru andragaz batera 1989an CDIMA sortu eban. Harrezkerotik 5.000 andra inguruk jaso dabe formazioa bertan, euren komunitateetan liderrak izateko, podere eta erabakitze eremu publikoetan karguak izateko, eta indarkeria sufridu barik bizi ahal izateko. CDIMAN formautako hainbat andra alkate, legebiltzarkide eta goi mailako politikan kargudunak dira gaur egun.

CDIMA aurrendaria izan da Giza Eskubide, Andren Eskubide eta Herri Indigenen Eskubideen aldeko burrukan. Zentro honetan, andra indigenai Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT) erakusten deusez, andra alkarteak indartu egiten dabez eragin politiko handiagoa izan dagien, indarkeria matxista eta andra indigenen bazterketaren kontra egiten dabe burrukan eta andren eskubideak zabaltzen

**Alicia Canaviri Areatzan.**

dabez komunikabideen bitartez, besteak beste. Liderrak formatuko "lehenengotik, bildurra kendu egin behar da, gero norberaren burua baloratu eta hortik formaziora eta eragin politikora pasetan gara" azaldu eban Alicia Canavirik.

Ekonomia solidarioa eta bidezko merkataritza

Canavirik 40 urte daroaz andra alkarte eta justizia sozialaren aldeko alkarteetan behar eta hainbat erakunde eta fundazio sortu ditu urte honetan guztietan zehar. Horreen artean, Federacion Nacional de Mujeres Campesinas de Bolivia Bartolina Sisa sortu

eban 1978an. Andra nekazariak aymara komunitateen oinarri eta ardatz dira eta Canavirik behar handia egin dau, bertako ekoizleak batera, ondo bizitea helburu daukan ekonomia solidarioa bultzatzeko. Bartolina Sisa alkartekoak Ekonomia Solidarioa eta Bidezko Merkataritza Mobimentuko partaide dira.

Mobimentu hau estatu mailakoa da eta nekazaritza, abeltzantza, ehungintza, egurra, narrua eta artisautza arloak hartzen ditu. Modu solidarioan ekoiztutako Boliviako produktu honek Europako herrialde askotan saltzen dira Bidezko Merkataritzako dendetan.

KAROBIA

San Justoko karobia barrero ketan abuztuaren 1ean, 11:00etatik aurrera

Jarraian martxan jartzen dan 20. aldia izango da aurtengoa.

Jon Urutxurtu

Juan eta Julian Aranaren zuzendaritzapean isiotuko dabe San Justoko karobia abuztuaren 1ean, zapatuan, goizeko 11:00etan, eta urteetan zehar ahaztuta eta amatatuta egon dan ke zurixkea San Justoko haretzen artean igongo da Gorbeia mendiaren tontorra bilatuz. Domeka eguerdirantza, kare bizia oka egiten hasiko da labe-agoa.

Orain dala hogeit urte berreskuratu eban Ipizki Taldeak, Juan eta Julian Aranaren zuzendaritzapean, 1950etik bertan behera itxita eta hondatuta egoan San Justoko karobia, eta ordutik hona, hutsik egin barik, urtero, abuztuaren lehenengo astegienean martxan ipinten dabe.

Isiotuteko ekitaldia 11:00etatik aurrera izango da eta ondoren, hamaiketako egongo da San

Justora hurreratzen diran guztientzat: urdaia, pamitxa eta ardaoa.

Bestalde, 14:30ean, auzo-bazkaria egingo da San Justoko harexpean. Bazkari herrikoi horretan edozeinek parte hartu daike, aurretik izena emonda.

Mezea, Paella Txapelketea eta bole

Hurrengo egunean, abuztuaren 2an, domekan, San Justoko erromeria ospatuko da. 12:00etan mezea izango da. Mezearen ostean maiordomoak barauskarria -ardao zuria eta gailetak- banatuko dauz jentearen artean eta jarraian Paella Txapelketea izango da.

Eguraldia lagun eta ohitua jarraituz, asko izango dira da San Justoko harexpean bazkaltzen geratuko diranak, eta arrastian 17:30etik aurrera, Bola eta Mus Txapelketetan parte hartzeako aukerea izango dabe.

**Kareharria, egurra eta sua nahasten dira karobian.****Argazkia: J.M. Arruabarrena.**

HIZTEGIA

Labayru Fundazioak Labayru Hiztegi Fraseologikoa online aurkeztu dau**Erredakzioa**

Labayru Hiztegi Fraseologikoa lokuzino edo esamoldeen errepertorio zabala eskeintzen dau. Bagilaren 25ean, lehenengo zatia aurkeztu zan, gaztelania-euskera. Hiztegiak 3.500 gaztelaniazko lokuzino, 18.000 euskal ordain eta baliokide, 4.500 adibide eta 1.000 sinonimo jasoten ditu. Gaztelaniazko unidate fraseologikorik garrantzitsuenak abiapuntutzat hartuta euskerazko berba-kate baliokideak landuten dira, bai bizkaieraz, bai euskera batuaz.

Hiztegiak hizkuntzearen ezau-garirik berezkoenatariko bat aztertzen dau: hizkuntza irudiena. "Erabiliaren podesuz, hiztunok esangura berezia hartzean daben berba-kate edo unidate fraseologikoa eratzten doguz (*llover a cántaros, no dar un palo al agua* edo *ponerse como un tonel*) eta horreen atzean hizkuntza bako-

txak berezkoa dauan iruditegia dago" esan eban Labayrukoak.

Aurkezpen ekitaldian, Ziortza Eguren, Labayru Fundazioa Lexikografia arloaren arduraduna; Adolfo Arejita, Labayruko zuzendaria; Jokin Azkue, Jaurilaritzako Euskera Sustatzeko Zuzendaria; Josune Ariztondo, BFAko Kultura ahaliduna eta Leire Aragon BBK-ko ordezkaria egon ziran.

Hiztegien webgune barrizua

Hiztegia, sarean konsultatu daite-

ke Labayru Hiztegia/Diccionario Labayrugaz batera hiztegia.labayru.eus webgunean. Webguneari itxura barria emon deusie, bilaketak arin eta errez egiteko. Gainera erabiltzaileak hiztegiatan batuta dagozan formen gaineko iradokizun edo proposamenak egiteko aukerea emoten dau webguneak, baita, foroaren bitartez plataformako partaideak iruzkin eta ekarpenak konpartiduteko.

Web diseinua telefono mobikor, tablet eta antzekoetara egokitzen da.

**Arejita, Ariztondo, Aragon, Azkue eta Eguren.**

IKERKETE

Arratiako gazteak, gazteak ikertuten**Irati Urien**

Gazte diagnostiko lez, amaitu da Inizitu. Ikertaldeak erantzun desbardinak batu ditu adin tartean bananduta. Urri lehenengoan

argitaratuko dabez emoitza definitiboak. Inizitu Asanblada egitea izango da hurrengo pausua; eta asanblada horretan, emoitza oinarri hartuta, Inizituen norabidea eta bilakaerea erabagiko da. Diagnostikoko emoitza espazio ireki bat sortutea da helburua, ikasturte honetako lana diagnostikoan eta papel hutsean bakarrik gelditu ez daiten. Inizitukoak eskerrak emon gura deusiez parte hartu daben gazte guztiai, eta aurrerako bidean be alkarregaz egoteko gogotsu dagozala adierazo dabe.

BIDEOA

Jentilak Diman ikuskizuna jasoten dauan DVDa salgai ipini dabe

Erredakzioa

Apirilaren 25ean Diman egindako *Ibilbide mitologikoa* eta *Jentilak Diman* ikuskizunaren bideoak grabatu ziran eta Txumulueta Elkarteak argitaratu ditu bideoak DVD baten. DVD-an bideo bi dagoz. Lehenengoak 10 minutu irauten dau. Bertan Indusi auzunetik urten eta Jentilzubi, Baltzolako koba eta Axlor parajeetan zehar egin zan *Ibilbide mitologikoa* agertzen da, ibilaldiko une garrantzitsuenak bilduz. Bi-

garrenean, egun bereko gauean herriko pelotalekuan ospatutako *Jentilak Diman* ikuskizuna osorik dago. Bigarren bideo honetan antzerki, jantza, musika eta beste, biltzean

dituan audiobisuala eskeintzen da. Partaide eta ikusle askok eskatuta antolatzaileak ebatzi eben DVD-a argitaratzea eta salgai ipini dabe 10 eurotan.



Jentilak Diman ikuskizuna.

AEK

Oinez eta bizikletaz egiteko barnetegiak antolatu ditu AEK-k

Erredakzioa

Barnetegiak deitzean diran arren, aire zabalean egingo dabe euren jarduna AEK-ko barnetegi ibiltarrietan parte hartzean dabenak. Barnetegi bi dira, bata oinez eta bestea bizikletaz, mintzapraktika egiteko aproposak. Oinezkoa garagarriaren 18tik abuztuaren 1era arte izango da eta bizikletazkoa abuztuaren 1etik 15era.

Hamabost egunez jarraian oinez edo bizikletaz egin behar bada be, ez dala aparteko exijentziarik behar dino Gorka Barrenetxea antolatzaileetakoak. "Baldintza bakarra hamabost egunez jarraian euskeraz bizitea da; hartara, mintzamina landuz mendiak, herriak, euskalkiak, ohiturak, jentea... ezetuteko aukerea parebakoa da".



Igazko partaide bi.

Talde bakotxean 15-30 ikasle inguruk hartzean dabe parte, eurekaz hiru antolatzailek talde

bakotxeko. Motxilak eta logistika guztia garraiatzeko furgoneta bat egongo da.

Euskal Herria ezetuten

Barnetegi oinez egin gura dabena hilaren 18an abiatuko dira Pagomakurretik. Gorbeia izango da lehenengo tontorra eta Hiru Erregeen Mahaian helmuga. Orixol, Aizkorri eta Aralar mendiak eta Irati eta Belagua lango parajeak zeharkatuko dabez ibilbidean.

Partaideak Bilbon alkartuko dira. Areatzara autobusez etorriko dira eta herrian bisita gidatua egingo dabe. Ondoren, Pagomakurrera igoko dira, hona be autobusez, eta han hasiko dira oinez.

Barnetegi bizikletaz egin gura dabena Urduñatik abiatuko dira abuztuaren 1ean eta Zarautzen daukie helmuga eta, besteak beste, Otxandio, Bardeak, Orreaga, eta Aralar topauko dabez bidean.

Izan be, Euskal Herriko ibilbide zapalduenetatik aparte geratzen diran txoko eta bazterrak ezetuteko aukerea be emoten dabe AEK-ko barnetegiak.

AUZOLANDEGIAK

Lubakien artean bidea egingo dabe Lemoatxan

Erredakzioa

Auzolandegeiak 2015 programearen barruan, 1937ko Lemoatxako lubakiak errekuperetan jarraituko dabe mundo osotik etorritako gazteak. Lubakiok errekuperau eta oinezkoentzako ibilbide bat egitea dira aurten egingo diran beharrak.

Aurreko urteetan lez, hamabost eguneko txanda bi egongo dira Auzolandegeietan. Garagarriaren 16an hasi eta abuztuaren 14an amaituko dira eta bertan, 40 bat gaztek hartuko dabe parte.

Aurreko urteetan hasitako lubakiak berreskuratzeko beharra jarraituko dabe, oraingoan, tontorrerantz eginaz. Gainera, tontorra inguratzen dauan bide bat zabaldu gura dabe ibilbidea egiteko asmoz. Ibilbide honetan, 1937ko batailearen gaineko informazioa emoteko panelak ipiniko dira.

Ibilbidea Gaintzabal tontor inguruan izango da. Orain arte berreskuratutako lubakietatik hasi eta tontorra inguratuko dau. "Lemoatxan 1937ko maiatza eta baguilaren bitartean gertatutakoa komentetea dogu helburu. Gainera, orain arte agertutako gorpuak inguru horretan bilatu dira eta

horren inguruko informazioa be ipini gura dogu panelen baten" azaldu deutso BEGITURI Mikel Garcia Lemoako Gazte Teknikariak.

Frente Euzkadi eta Aranzadiren laguntzaz

Lemoatx 1937 Memoria Historikoa errekuperetako Batzordearen ekimenez, 2013an, Lemoako Udalak Eusko Jaurlaritzaren Auzolandegeiak programan sartu eban Lemoatxako lubakiak errekuperetako beharrak. Harrezkerotik, 2.000 m² inguru berreskuratu dira; hau da, ehunekotan esatea gatxa dan arren, eramuraren % 15 inguru Mikel Garciaeren usteetan.

Lubakiak topatzeko, Lemoatx 1937 Batzordekoak Frente Euzkadi eta Aranzadiren laguntzea daukie eta eurekaz ikertzen dabe ingurua, lubakien kokapenaren inguruan dagoan dokumentazioa kontuan izanda. "Dokumentazio bakarra, Jaime Urquijoren memorieta dagoan *Planificación de Peñas de Lemona del Comandante Sabino Zubiaga* da. Bertan mendia inguratzen dauan lubakien krokis bat dago, defentsarako diseinatu dagozanak" dino Garcia.



LARRE ALDAKETEAK

Gorbeiarako bidea egin eben Enrike Etxebarriak, bere artaldeak eta laguntzaileak

Jon Urutzurtu

Urtero legez, aurten be Enrike Etxebarriak eta bere artaldeak Zeanuriko Elexartza baseritik Arrabako landarako bidea bete eben baguilaren 27an, zapatuan. Ipizki Taldearen eskutik ekintza honetan parte

harteako aukerea zabalik egoten danez, berrogeta hamarren bat ibiltarik lagundu eutsien Enrikeri Gorbeiarako ibilbidean. Artzaintzaren gorabeherak ezetuteko gogoagaz, adin eta leku desbardinatoko jentea hurreratu zan Zeanurira: Gasteizkoak, Bilbokoak, Barakal-



Enrike Etxebarria, artaldea eta laguntzaileak Arrabara bidean.

dokoak, Igorrekoak, Erandiokoak, Londreseko bikote bat...

Larre aldaketarako sasoi ezin hobea izan eben: eguzkitsua baina ez oso beroa; 09:30ean abiatu ziran Elexartza baseritik eta 12:30erako Arrabako landara heldu ziran pastorea, ardiak eta laguntzaileak. Hurrengo hilabetean Lekanda haitzaren oinarrian daukan txabolan egongo da Enrike, eta bere zereginak esnea batzea eta gaztaingintzea izango dira. Garagarriaren 31n, San Inazio egunean, ardiak antzutu eta udako mendiko egonaldia amaituko dala iragarri arte.

AGENDEA

**GARAGARRILAK 1
AREATZA**

AKKBren Argazki Lehiaketea.

**GARAGARRILAK 3
AREATZA**

Santomas jaiak.

DIMA

19:30ean, Etxean gure doguz, presoan aldeko konzentrazioa. Plazan.

ZEBERIO22:30ean zinea aire librean *Babe, el cerdito valiente*. Plazan.**GARAGARRILAK 4
AREATZA**

Parkeak antolatuta, Gorbeiko zutarrak ezetuteko ibilbide gidatua, Juan Manuel Perez de Ana biologoaren eskutik.

20:00etan, Animal Blues taldea The Quiet Corner-en.

LEMOA

Hilaren 12ra arte, Ganzabal Mendi Taldearen udako urteker berezia Pirineotara. Refugis del Torb.

**GARAGARRILAK 6
IGORRE**

Hilaren 10era arte, gazteentzako udaleku irekiak.

**GARAGARRILAK 7
ARTEA**

Hilaren 17ra arte, udal udalekuen bigarren banda.

**GARAGARRILAK 10
IGORRE**

San Kristobalگو jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

ZEBERIO22:30ean zinea aire librean *¿Y ahora, dónde vamos?*. Ermitabarrin.**GARAGARRILAK 11
AREATZA**

20:00etan Silvio Rodríguez-en gaua The Quiet Corner-en.

**Igorreko Aurreku Txapelketak
14 urte egingo ditu aurten**

Garagarriaren 4an, arrastiko seiretan, Igorreko XIV. Aurreku Txapelketea jokatuko da Kultur Etxeko Lasarte Aretoan. Hamahiru neska-mutil izango dira aurten lehian eta horreen artean, arazorik ezean, Asier Etxezarraga Igorrekoa be egongo da. Igaz Josu Marcos leiozarrak irabazi eban txapelketea.

Aurtengo edizioan parte hartuko daben aurrekulariak Igorre, Orozko, Leioa, Santurtzi, Portugalete, San Inazio, Barakaldo, Loiu eta Sestaotik datoz. Partaiderik gazteenak 9 urte ditu eta zaharrenak 35 inguru.

Irabazlea nor dan Igorreko aurrekulari bik eta Bilboko batek ebartziko dabe. Izan be, epaimahaia Joseito Casasek, Iratxe Salcedok eta Juan Pedro Bilbao osotuten dabe. Joseito Casas Bilboko aurrekularia izan zan gaztetan, eta lehiaketa askotan hartu dau parte. Iratxe Salcedo, barriz, igorreztarra da, Arantzarte jantza taldeko jantzaria berau. Beste igorreztarra Juan Pedro Bilbao da. Hau Basauriko Edurre eta Igorreko Beti Bizkor jantza talde gogoangarrian ibili zan bere gaztezarroan.

**GARAGARRILAK 12
LEMOA**

11:00etan, Igitie baserritar azokea Elizondan.

**GARAGARRILAK 13
LEMOA**

Hilaren 24ra arte, eguraldia ona bada, 11:00etatik 14:00etara, ludotekea igerilekuan.

**GARAGARRILAK 16
LEMOA**

Auzolandegiak abuztuaren 14ra arte.

**GARAGARRILAK 17
IGORRE**

Gazteak Kataluniara, 14 eta 16 urte bitartekoak; 16 urtetik gorakoak Belgikara.

ZEBERIO22:30ean zinea aire librean *La selva esmeralda*. Plazan.**GARAGARRILAK 18
AREATZA**

AEKko oinezko barmetegi. Areatzan bisita gidatua. 20:00etan, Nevada taldea The Quiet Corner-en.

ARTEA

Santamañe jaiak.

DIMA

Santamañe Jaiak Bargondia auzunean. Mezea eta barauskarria.

LEMOA

Tallereta eta Lemoretako jaiak. 11:30ean, txupinazoa, kalejira eta poteo musikatu Atutxen; 14:00etan, saiheski eta txanpinoi jana Zementoseko etxeetan. Bazkalostean, Argentinatik etorritako magoaren ikuskizuna *Magia en zapatillas*; Arrastian, jolasak eta Tortilla Lehiaketea; 19:30ean, tortillen aurkezpena eta auzoko piper eta tomate lehiaketea; 20:15ean kontzertua Chacarera bikoitza; amaitzeko jaietako panpina erre.

ZEBERIO

San Segismundo jaiak Upon.

**GARAGARRILAK 20
BEDIA**

Uda Gaztea biatjea.

**GARAGARRILAK 22
DIMA**

Madalenak Lamindaon.

UBIDE

Madalena jaiak.

**GARAGARRILAK 24
LEMOA**

Hilaren 26ra arte, Pirinioetara urtekera. Tentes lepoa-Sarradets aterpea. Tallon (3.144 m.)-Gabieta (3.035 m.). Sarradets aterpea-Tentes lepoa. Torre de Marbor (3.012 m.)-Casco (3.011 m.).

ZEBERIO22:30ean zinea aire librean *Interestelar*. Ermitabarrin.**GARAGARRILAK 25
LEMOA**

12:00etan mezea eta ondoren barauskarria Arañon.

ARTEA

Mezea eta barauskarria Santiagon.

DIMA

Santiagon mezea eta barauskarria.

ZEANURI

Jaiak Ipinaburun.

**GARAGARRILAK 29
LEMOA**

Lemoako jaiak hasten dira. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**GARAGARRILAK 31
AREATZA**

San Inazio Gorbeian. Autobusak Areatzatik Pagomakurrera.

ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak antolatuta, Gorbeia (1.482 m.).

22:30ean zinea aire librean *Pollo con ciruelas*. Plazan.**ABUZTUAK 1
ZEANURI**

11:00etan karobia isiotuko da San Juston. Ostein hamaiketako. 14:30ean auzo-bazkaria.

**ABUZTUAK 2
ZEANURI**

12:00etan mezea San Juston. Ostein barauskarria -ardao zuria eta gaitak- banatuko da. Jarraian Paella Txapelketea. 17:30etik aurrera, Bola eta Mus Txapelketak.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**PISUA SALGAI**

Igorren. 3 logela, saloia, komuna eta sukaldea. Biziten sartzeko moduan. Sano-sano argitsua eta eguzkitsua. Kalerantza emoten dau. 115.000 eurotan. Deitu 677 951 606 (Iru).

HOZKAILUA SALGAI

Hozkailua furgoneta zein karabanarako. la barria, hile bitan erabilia. 630 419 476 edo 94 631 71 45 telefonora deitu. Rosa (Artea).

DANERIK**BEHAR BILA**

Etxeko beharrak eta garbiketarak egiten dodaz. Kotxeduna 658 591 307.

PINTURA IRAKASLE BILA

Norbait prest egongo balitz pintura irakasteko eskola orduetatik kanpo Igorre aldean 10 urteko neska pare bateri, seguru konponduko garala. Interesatuak lcbilbao@gmail.com erabili, mesedez.

ETXEAK EDO GELAK ALOKAIRUAN

Conil de la Fronteran etxeak zein gelak

alokatzen dira. 647 126 074 Rosario.

BASERRIRAKO LAGUN BILA

Baserrian biziteko lagun bila nabil (Zeberio). Bilbotik ordu erdira eta herrigunetik (denda, mediku, taberna...) 10 minutura oinez. 200 euro personako, gastuak barne. Interesatuak deitu 687 338 515 telefonora.

BEHAR BILA

Igorreztar euskalduna, ikasketaduna eta kotxeduna, urri lehenengoaren 1etik aurrera umeak zaindu eta etxea garbitzeko prest. Deitu 639 293 539 (Eider).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1

Suzien Mendi Klubak emondakoa kamiseteta.Karme Angoitia (Zeanuri)
Ekhi Zabala (Basauri)

2

Axpe Goikoak emondakoa Garena txakolin kutxatxo.

Rosana Pedrosa (Areatza)




Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Makina bat. 2.- Mairidire. Letra bat.
3.- Moduko. Erbioa. 4.- Litioa. Ezen.
5.- Fosforo. Haga, habe. Nitrogenoa.
6.- Andrazkoen izena. Errepetiduta,
kontuz. 7.- Errubidioa. Berne. 8.- Letra
bat. Andrazkoen izena. 9.- Zergaitiko.


GOITIK BEHERA

1.- Bizia galdu. Zati. 2.- Narru.
Niobioa. Konsonantea. 3.- Bastoia.
Emea ez dana. 4.- Sasoi. Bokala.
Berba alkarketan, adar. 5.- Giti falta.
Ezgauza. 6.- Konsonantea. Ezetza.
Ogi mehe eta biribil. 7.- Mesedez.
Aihen.



Topau pozoia daukien zazpi animalia izenak.

T	S	A	K	O	R	T	A	S	E
X	E	A	I	O	G	A	R	D	L
I	B	E	L	A	M	U	K	I	S
S	A	S	I	K	U	M	A	L	U
T	A	K	B	E	H	I	A	S	K
O	R	O	U	K	O	B	R	A	I
G	E	R	R	A	P	A	T	A	K
A	S	P	U	R	L	E	B	L	I
Z	A	I	B	E	P	I	R	U	A
O	S	O	G	A	R	T	I	T	X
H	I	I	B	E	L	E	K	N	U
E	M	A	R	M	O	K	A	A	G
F	O	M	U	R	E	B	U	R	E
A	M	R	A	I	M	R	A	A	R
K	A	K	O	R	A	N	I	T	U



umean moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 52 96 • seimoda@hotmail.com

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa.: 94 673 64 75

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Tfnoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**Egin zaitez
Begitu lagun!**

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGA, KONTABILITATEA
Tf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bago - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 06

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskuratzeko zain ordoraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-posta: vnozku@arratia.net

SABIN BIKANDI BELANDIA

"Jantzearen irakaskuntzearen normalkuntzea da iparra eta norantzkoa"

"Tradegin, tradizinozko jantza garaikidea egin" EHUko uda ikastaroa izan da Areatzan bagilaren 26, 27 eta 28ko astegoienean. Ikastaroa Aiko taldeak emon dau, EHUguz hitzarmena dauka eta. Izan be, jantza tradizionalaren irakaskuntzearen normalizaziorako beharrea dabiz Aiko taldean. Aiko Taldeko eta Bilboko Txistularien Bandako Sabin Bikandi bertan egon da. Aspaldi ez dala Espainiako Arte Eszenikoen Max saria jasoten ikusi genduan.

Erredakzinoa

Espainiako Arte Eszenikoen Max saria jaso dozu aurten Kukairen Gelajauziak ikuskizunerako egindako konposizinoagaitik. Azaldu apur bat ze konposizino klase dan, zelan sortu zan... Eta zer dan Gelajauziak.

Gelajauziak Kukaik Cesc Gelabert Kataluniako koreografoagaz batera martxan ipini eban proiektua da. Lehenengotik pieza bat egin genduan jauzien inguruan. Proiektuaren hasieran, Patxi Laborda eta biok egon ginan eskola batzuk emoten bai jantzariak eta bai koreografoari, Kukaikoakaz eta Cesc beragaz beharrea. Eta gero proposatu eusten pieza baterako musikea egitea. Eta holan hasi nintzan jauzien inguruan hainbat musika egiten.

Gero beste atal bat egin zan, beste pieza bat egin genduan jotzen inguruan. Prozesu antzekoa izan zan. Patxi eta biok joan ginan Aikotik Kukaikoakaz eta Cesc-egaz eskola batzuk emoten eta gero musikea egin genduan. Enkarguzko obra bat da eta Cesc-en aginduetara egon gara. Guk bertako jantzak eta kontuak jakinda egin genduan beharra. Neurria egindako traje bat dala esan geinke.

Pozik nago egindako beharraz, asko ikasi neban Cesc-egaz estudioan. Hasieran apur bat bildurtuta nengoan ez nekialako maisu handi bategaz estudioan sormen lana zelan joango zan, baina oso persona zabala eta atsegina da eta hainbat gauza interesgarri ikasi dodaz beragaz.

Txistua eta tanbolina, euskal musikea eta jantza tradizionala, ohiko eremutik kanpo urten

dala eta errekonozimentua jasoten hasi dala emoten dau. Izan be, unibersidadeak, EHUk udako ikastaroen artean Aikok emon dauan jantza ikastaroa dago, ezta?

Galdera honetan gauza batzuk nahastu egiten dira. Batetik ohiko eremutik kanpo... Tendentzia daukagu beti eremuak, etiketak eta holan gauzak finkatu moduan ikusten. Txistua eta tanbolina beti egon dira bizirik eta jotzen dogunok persona desbardinak gara eta arlo desbardinetan egiten dogu behar. Musika tresnak landutean gorabeherak egoten dira historian zehar. Sasoi baten txistulari ospetsuak Europako gorteetan behar egiten eben. Musikari profesional inportanteenak txistulariak eta tanbolinteroak ziran sasoi haretan; tanbolinak jantzan egiteko emoten eban eritmoagaitik, eta, orduko idazleak aitazten eben. Musika tresna merkea zan eta gizon batek -eta dinot gizon batek orduan andra txistularirik ez egoalako- gizon batek jotzen eban melodia eta tanbolina. Horregaitik izan eban arrakastea.

Txistuak eremu asko izan ditu beti. Errekonozimentua, ez dakit. Max saria txistuari errekonozimentua ete dan, ala Kukai eta Cesc-egaz batera egin dogun lan horeri, sormen lanari eta musikeari errekonozimentua.

Gero aitazten dozu EHU-n Aikok emongo dauan jantza ikastaroa. Hori beste eremu bateko lana da, Aikok egiten dauan lana da eta hor esango neuke irakaskuntza transmisioa normaldu guran gabizala. Guk sarritan erabilten dogun adibidea jentek ulertu dagian euskerearena da. Orain dala 50 edo 60 urte, eskolak emoten ebanak borondatez emoten eban, sarritan inongo formazino

barik, euskalzaletasunagaitik. Geure ama be holan ibili zan eta geure ama ia analfabetoa da. Gero 1970 hamarkadan, Franco hil eta institutuetan euskera irakasleak behar ziranean, beste era bateko ikasketak euki eta euskeraz alfabetatuta egotzanak euskera irakasle bilakatu ziran. Hor nire arreba dago, soziologoa da baina euskerazko katedraduna be bai. Eta gero beste fase baten, Gotzon Garatek Deustuko unibersidadean lortu eban Euskal Filologia martxan jartzea. Bide horretan gero hainbat gauza joan dira egiten: euskaltegiak sortu, euskera irakasteko erakunde bereziak, Euskaltzaindia indartu eta abar. Holan, nahiz eta hobetu leikean, gaur egun, euskeraren eremuan behintzat, danok argi daukagu euskera irakasteko, irakasle izan behar dala eta horretarako formazino eta titulazino minimo bat behar dala eta edozein kasutan be profesionalen beharra dala eta horregaitik ordaindu egiten dogu. Irakasleai ordaintzen jakie ingelesa, alemana edo matematikak irakasteko ordaintzen dan bezala.

Jantzearen munduan, barriz, hori egiteko dago. Sarri askotan ondino askok irakasten dabe gure ama ibiltzen zan planean: formazino barik eta erabat bolondres. Hori guretzat erronka bat da, inportantea, eta hor kokatu geinke unibersidadeagaz daukagun akordioa eta iparra, norantza goazen. Urtebete daroagu hitzarmena sinatu genduala eta hainbat gauza egin doguz: jantzari ibiltaria, Bilboko Bizkaia aretoan eskolak emoten hasi gara helduentzat, hainbat ikastaro monografiko egin doguz, umeai jantzak zelan irakatsi, kantu ikastaroren bat be egin dogu eta orain ikasturtea amaitukeran Areatzan egin dogun jantza ikastaroa.

Komentau zeunstan behin, korru jantzak tribuaren jantzak

dirala. Beraz, identidate relationala. Ze papel jokatzen dau holango identidateak gizarte moderno eta zientifikoan? Ze papel jokatzen dabe korru jantzak gaur egungo jaietan?

Korru jantzak edo, bueno, talde jantza eritualak ondino manteniduten dira. Jantzari jantza da guk hurbilen daukagun adibidea. Honek ondino zuzter apurtxo bat manteniduten dau. Baina orokorrean, jantza eritualak aldatu edo egokitu egin dira sasoi barrietara.

Korru jantzak, barbarako, beren zentzuna aldatu dabe. Jantza jauziak, modan ipini dira. Hasieran hori talde bat zan jantzan egiten ebana eta gaur egun jentek horren zentzuna erabat aldatu dau eta ez da talde bat jantzan, baizik eta banakoak jantzan. Norbanakoak, indibiduak. Alkarren ondoan ipinten dira baina ez dagoz alkarregaz jantzan. Bikote jantzan, barriz, harreman personala dago derigorrez, baina jauzi jantzak apurtxo bat zeure airera ibiltzeko dira. Gure gizartearen izakera be isladatzen da egokitze horretan, nahiko indibidualista dalako gure gizartea. Talde jantza zana banakakoen jantza bihurtu da. Alde batetik hori pena bat da, baina bestetik gaur egun dagoana islatzen dau. Hori jauzien kasuan, beste jantza eritual batzuetan, zuztarra mantentzen da.

Eta beste jantzak -aurrekua, arin-arinak, fandangoak...- ze papel jokatzen dabe gure gaurko gizartearen? Funtzinoa aldatu dabe ala mantenidu egiten da?

Orokorrean jantzen funtzinoa aldatu egin da. Hasteko erromeri jantzen funtzinoa. Guretzat, Arratia inguruan, jantzea eta jantzan egitea batez be erromerian jantzan egitea izan da: pasodoblea, balsa, jotea, porrua edo dana dalakoa. Horren funtzinoa kor-

tejoa zan, bikote harremanak hasta. Adin batekoak behintzat, matrimonio edo bikote gehienak, harremana hasteko erromerian egiten eben. Lehenengo errekaduak erromerian egiten ziran: jantzan eskatu, etxera lagunduteko permisoa eskatu eta holan izaten zan. Gurasoak, izeko-osabak eta aitita eta amamak danak holan hasi ziran. Gaur egun kortejo zentzu hori aldatu egin da, baina bardiin jarraitzen dau hor, funtzino hori beti dago. Edozein kasutan egokitu egin da eta gehiago da harremanetarako erraminta bat zentzu zabalean, lagunartekoa sarritan, antzekoak alkartzeko modu bat izaten da. Jente euskalduna eta euskaltzalea edo jantzaileak alkartzeko modua, hain zuzen. Harremanetarako bidea dala argi daukagu guk eta holan erabilten saiatzen gara. Sarritan berbokaz esaten ez doguzan gauza asko komunikatzen dira jantzan. Beraz, guretzat, oinarriko funtzinoak, harremanak, hor jarraitzen dau.

Eta txistuak eta tanbolinak ze papel jokatuten dabe?

Lehen esan deusudan moduan, gorabeherak izan ditue historian zehar. Francoren sasoiak txistulari edo jantzari izatea, euskal mobimentuaren parte izatea zan. Euskalduna izateko derrigorrezkoa zan edo txistulari edo jantzari izatea. Gero gauzak normaltzen joan dira eta gaur egun talde folklorikoak euren bideak topatzen dabez. Gu beste saiakera bat egiten gabiz jantzea herrikoitzeko edo bergizarteratzeko.

Txistuagaz antzekoa gertatzen da. Hainbat txistulari gagoz eta txistua landuteko mota desbardinak daukaguz. Batzuk ahalegintzen dira Ganbarako musikea edo musika klasikoa egiten, eta beste batzuk hemen gabiz zuztarretara bueltau guran jantzarako jotzen, eta jantzarako jotzen irakasten eta hori guztia.

